



EXCMA. DIPUTACION PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA

ARCHIVO Y BIBLIOTECA

Donostian. Apirillaren 25'an. 1959

Pierre Lafitte Apaiz jaun agurgarriari.
Ustaritz.

Biotzeko Lafitte:

Artu muan zure "Autour de la Bible traduite en Basque par le Père R. Olabide". Baita ere, joan dan igandean, nere lagun periodista baten bitartez, beraren ager-berria emengo periodiku batian eman ere, zure aizkenengo parrafua erderaz agerzen zala. Jesuitak jakin zezaten, alegia.

Beste arazotxo bat agertzera natorkizu karta onen bitartez. Begira. "Gure Herria" errebistaren suskritzioa, Diputazioko liburutegi onen suskritzioa, Dorratsague apezaren bitartez ordaintzen nuan. Dorratsague apezaren denpora askoan gaixo egonda gero, ill omen da. Orain dala urte bat Dassance jaunari eskribitu nion suskritzioa au ordaindu naian, baño ez ziran erantzun.

Ta emen nago zer ordaindu bear degun, eta noiztik, jakin naiean. Orrenbesteraño aberatsak al-zerate? Mesede au egin nai al zenidake? Zer, edo, danera zenbat sor dio Diputazioko Liburutegiak "Gure Herria"ri. Ezkerrak biotzez aurretik.

Zure zure biotzeko lagun

José de Arache



EXCMA. DIPUTACIÓN PROVINCIAL
DE GUIPÚZCOA

ARCHIVO Y BIBLIOTECA

Donostia. Mayatzak 20. 70

P. Lafitte kanonigo agurgarria
Bayonne

Agur biotzeko adixkide: Mutil gazte bat datorkit.
Euskalduna. Donostiarra.
Gurasoak langilleak ditu, bañan bera oso gogoz,
miriku, sendagille ikasten ari da. Bigarren urtia
orain bukatuko du. Ogeitabi urte ditu.

Udara partian lanera irten nai luke. Lan egitiak
ez dio bildurrik ematen. Prantzezez zerbait badaki.
Jan eta zerbait irabazteko aukera izan nai luke,
al-balitzake beintzat.

Mutil onen naia jakin arazteko modurik izango li-
tzake or, zure HERRIA asterokoan.?

Jakin arazi, besterik ez. Obra on bat egingo genuke.

Biotz-biotzez, zure adixkide

José de Artache

Mutillen izena: Luis Gereca Barandiaran

Gereca